



“Ideologia serbilleta mutur batean kabitzen da”

Iñaki Anasagasti

Senatua Anasagasti politikatik baino lehenago desagertu baietz!

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

Hemen kafeari Baque eta politikaren oihanean bizirauten dutenei historiko esaten zaie.

Politika politika baino ez da, baina politika onik gabe munduak ezin du ondo funtzionatu. Beste batzuek egingo luketena ez litzaidakeenez gustatuko, nahiago dut nik egin.

Mundu guztia ezingo delako jubilatuko kexatzen eta zuk erretiratzeko asmorik ez?!

Benetako politikaria gaizki lurperatuta egon daiteke baina hilda ez: arnasa duen artean aspirazioak dauzka.

Abertzale baten erretiroa senatua dela diote mingain gaiztoek.

Hau fronteko lehen lerroa da, Athleticekin Bernabeun jokatzeko bezalakoa. Gol bat sartzen duzunean izugarri pozten zara, normalean gol guztiak zuri sartzen dizkizutelako.

Ez hasi biktimarena egiten, e, zure ibilbidean denekin paktatu duzu eta!

Politika elkarrizketa eta paktua da. Ideologia serbilleta mutur batean kabitzen da, eta gainerakoa harreman pertsonalak eta koiuntura dira.

Zenbateraino elkar maite duzuen ikusita, erregearekin paktatzekotan egongo zara orduan?

74 urteko aitona, krisi gorrian elkartasunaren apologia eginda, maitalearekin elefanteak ehitatzera doanean dena esanda dago, ezta?

Okerrena da PP, PSOE, eta gorteetako medio batzuek delituak tapatzen eta jarrera kondena-garriak isiltzen ari direla.

Eskerrak politikari batzuek beti pentsatzen duzuen esaten duzuen...

Bai zera! Politikari batek beti pentsatzen duena esango balu ez litzateke alderdirik existituko. Politikoki zuzena izatea egia esateko grina irenstea da.

Zergatik ez duzue inoiz dimititzen?

Politikari batentzat dimisioa baino okerragoa da hauteskundeetan hautatua ez izatea, eta bozka bat ez du etikak edo ideologiak baldintzatzen, marketinak baizik. Ez zara ohartu ez dutela beti onenek gobernatzen?

Ez da izango!

Demokrazia iritzi publikoaren ispilua da, eta ispiluan eder agertuko bazara zure perfil lirainenak zabaldu behar dituzu, ez zaitzaten epaitu ezkutatu nahi dituzun pikorten arabera.

Ikusten dut, bai, gatazka konpontzen oso zentratuta zaudela.

ETA desagertzean abertzaleek politika egingo dute eta kito. Hori bai, presoak daudeno ETA egongo denez, presoan gaia bideratzen saiatuko gara ETA desagertu dadin. ■

